



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailak 9**

**Vitoria-Gasteiz, 9 de julio de 2019**

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### GOBERNUAK ONLINEKO GARDENTASUN-EREDUA FINKATU DU, ETA HERRITARREI FORMATU BERRERABILGARRIAN ESKAINTZEN DIO EZAGUTU NAHI DUTEN INFORMAZIO GUZTIA

- Euskal sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzko 2018ko balantzeak ondorioztatzen du Gobernuak “aurrerapen sakonak” egin dituela, harik eta, gaur egun, herritarrei “kalitatezko informazioa, zehatza, osoa, eguneratua, testuinguruaren arabera, esanguratsua eta irekia” eskaini arte
- Txostenak 2018ko une garrantzitsu gisa honako hau nabarmentzen du: Euskadi [Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzan \(OGP\)](#) sartu izana; horrek aukera ematen du gobernuak irekitzeko modua eta era bat etortzeko, herritarrekin elkarreaginean jarduteko eta elkarlaneko gobernamendua sustatzeko

Gaurko bileran, Gobernu Kontseiluak onartu egin du “**Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere sektore publikoko administrazio orokorrean gardentasuna ezartzeko mailari buruzko 2018ko balantzea**”. Laugarren urtez jarraian prestatu du Eusko Jaurlaritzak dokumentu hau eta, horrela, 2015eko urtarrilaren 13an hartutako konpromisoa bete du; orduan, informazio publikorako sarbidea, publizitate aktiboa eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrerapena arautzeko neurriak onetsi zituen.

Txostenak egiaztatzen du Eusko Jaurlaritzak “aurrerapen sakonak” egin dituela erakunde publikoek herritarrei online informazio zehatza eskaintzeko betebeharrari, argitaratzeko moduari, herritarrei informazio publikora jotzeko eskubidearen inguruan eskaintzen zaien bermeari, nazioarteko gardentasun-estandarren betearazpenari –besteak beste, Transparencia Internacional GKE-k ezarritakoak– dagokienez. Horrela ondorioztatzen du sektore publikoa eratzen duten erakundeek gardentasun-betebeharrak oro har bete dituztela: erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak, nortasun juridikorik gabeko funtsak, fundazioak, partzuergoak eta irabazi-asmorik gabeko beste batzuk.

Hori horrela, gaur onetsitako txostenean Eusko Jaurlaritzaren beraren gardentasun-ereduaren finkapena jaso da, gobernu onerako tresna gisa, gauzak ondo egiten dituen eta euskal gizartearentzat gauza onak egiten dituen gobernurako. Nabarmendu behar da Gobernuaren autoexijentzia, argitaratutako informazioa “kalitatekoa, zehatza, osoa, eguneratua, testuinguruaren arabera, esanguratsua eta irekia izateko, eta berrerabili ahal izateko”.

## GOBERNU IREKIAREN ALDEKO NAZIOARTEKO ALIANTZA (OGP)

2018an, honako une garrantzitsu hau nabarmendu behar da: Euskadi **Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren (OGP)** sartu izana, munduko beste 19 eskualderekin batera. Bertan sartu zen, Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru-aldundien, hiru hiriburu-udalen eta *Innobasque* Berrikuntzaren Euskal Agentziaren konpromisoari, lanari eta erakundeen arteko lankidetzari esker. Euskadiko baterako hautagaitzak plan bat prestatzera bultzatu zuen; hura prestatzen herritarrek ere parte hartu zuten. Planak bost konpromiso aurreikusten ditu:

- ✓ Kontuak ematea mandatu-planen
- ✓ bidez
- ✓ *Open data Euskadi* eta *Linked open data*
- ✓ *ILAB* edo herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzako laborategia.
- ✓ *Open Eskola* (Herritarrentzat irekitako eskola).
- ✓ Integritatearen euskal sistema.

## GARDENTASUN-ATARIA: GARDENA

Txostenak egiaztatzen du **Gardenak**, Eusko Jaurlaritzak 2015ean sortutako gardentasun-ataria, "kalitate-maila handiko, erraz eskuratzeko moduko" online informazioa batzen duela "aldian behin eta deskripzio-izaeraduna". Gehienak formatu berrerabilgarrietan argitaratutako datuak dira. **Eusko Jaurlaritzak webean argitaratzen du:**

- ✓ Araudi aplikagarria eta garrantzi juridikodun informazioa: gidalerroak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak, aurreproiektuak, erregelamendu-proiektuak, memoriak, txostenak, dokumentuak eta abar.
- ✓ Hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak. Hitzarmen-modalitate eta kudeaketa-agindu guztiak argitaratzen dira: protokoloak, kofinantzaketa-hitzarmenak, ondare-hitzarmenak, barneko esleipenak, kontratu programak eta abar.
- ✓ Funtzioak, erakundeen organigramak, Kargu Publikoen Katalogoko lanbide-profila eta -ibilbidea. Pertsona, erakunde eta ekipamenduen direktorioa bisita daiteke, erraz kontsultatu eta ikusarazteko.
- ✓ Urteko eta urte anitzeko plan eta programak, betetze-mailaren eta emaitzen adierazleak. Argitaratuta eta eguneratuta dago Eusko Jaurlaritzaren planen egutegiarekin lotura duen informazio guztia, bai eta neurketa- eta balorazio-adierazleak ere.
- ✓ Kontratazioaren argitalpena. "Kontratuen Euskal Erregistroan" euskal sektore publikoak eta erakunde parte-hartzaileek sinatzen dituzten kontratuen % 100 argitaratzen da.
- ✓ Dirulaguntzak eta laguntzak. Guztiak argitaratzen dira datarekin, erakundearekin, onuradunarekin, zenbatekoarekin eta abar.
- ✓ Lanpostuen zerrendak, enplegatuen bateragarritasun-ebazpenak eta langile publikoen eta kargu publikodun langileen ordainsariak
- ✓ Bestelakoak: derrigorrezkoa ez bada ere, Eusko Jaurlaritzak informazio ugari argitaratzen du, besteak beste, Gobernu Programaren segimendua,

kargu publikoei buruzko informazioa, sailburuen bidaiak-gastuak, urteko araudi-planak etab.

**Gardenan** gardentasunari buruzko eduki orokorretako sarbideak bikoiztu egin dira 2016tik, eta horrek erakusten du herritarrek administrazioaren funtzionamendua ezagutzeko duten interesa:

### KONTSULTATUTAKO GARDENTASUNARI BURUZKO EDUKIAK

| ARLOA  | 2018    | 2017  | 2016   | 2015  | 2014  |
|--|---------|-------|--------|-------|-------|
| Gardenaren webgunea, globalean                       | 11.286  | 9.138 | 16.173 | 5.532 | 3.775 |
| Autonomia-erkidegoari buruzko informazioa            | 322     | 335   | 1.283  | 1.422 | 571   |
| Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak         | 159     | 179   | 659    | 593   | 221   |
| Ekonomia- eta finantza-gardentasuna                  | 306     | 232   | 954    | 729   | 372   |
| Zerbitzu eta horniduren kontratazioa                 | 202     | 142   | 582    | 584   | 223   |
| Lurralde-antolamendua, hirigintza eta obra publikoak | 79      | 46    | 162    | 198   | 108   |
| Informazio publikora jotzeko eskubidea               | 2.995   | 2.253 | 8.359  | 1.715 | 2     |
| Gardentasunari buruzko eduki orokorrak               | 4.496 * | 3.879 | 2.385  | 850   | 66    |

### EUSKADI LIDER DA ADMINISTRAZIO DIGITALEAN ETA OPEN DATAN

*Ernst&Young* aholkularitza-etxe multinazional ospetsuak oraintsu argitaratu duen txostenaren arabera, Euskadi buru da Estatuan administrazio digitalean; izan ere, funtzionamendu digitalaren eskakizunen % 94,7 betetzen du: web-ataria, egoitza elektronikoa, herritarrentzako eta enpresentzako asistentzia, identitate digitala eta sinadura elektronikoa, ordezkartza eta erregistro elektronikoa eta komunikazioa eta jakinarazpenak.

**OpenData Euskadi** atariak, gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren eta bere mendeko erakundeen 3.441 datu-multzo ditu. Gainera, beste foru- eta toki-administrazio batzuetako 741 datu-multzo ditu. Horrela, Eusko Jaurlaritzak jarraitzen du izaten, aurten ere, Estatuko [www.datos.gob.es](http://www.datos.gob.es) katalogoan dataset gehien argitaratzen duen datu-iturria.

### GARDENTASUNAREN LEGEA

Txostenak egiaztatzen du Legebiltzarreko Nazionalisten eta Euskal Sozialisten taldeek aurkeztutako “Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Lege Proposamena” onestean, horrek lagundu egingo duela informazio publikora jotzeko eskubidea, kontu-ematea eta

herritarren partaidetza bermatzeko egiten jarraitu behar den aurrerapen-ahaleginak orientatzen. Etorkizuneko legea onetsi bitartean, Eusko Jaurlaritzak jarraitzen du 2019an are administrazio gardenagoa lortzeko erronkekin. Horretarako:

- ✓ Argitaratutako informazioaren kalitatea hobetzen ari da
- ✓ Herritarrek informazio publikora jotzeko duten eskubidea baliatzeko sistema ezartzen ari da, herritar guztientzako eskuragarria izateko eta benetan herritar guztietara zabaltzeko.
- ✓ Irisgarritasunerako eta informazioa ulertzeko bide ematen ari da
- ✓ Datu publikoak irekitzea sustatzen ari da
- ✓ Eusko Jaurlaritzak sortutako tresnak zabaltzen ari da, sektore publikoa eratzen duten erakundeek erabiltzeko, baliabideak arrazionalizatzeko
- ✓ la berrehun erakundek argitaratutako informazio guztiari koherentzia ematen laguntzen ari da, bai eta herritarrei informazio-sistemetara batera sartzeko bide ematen ere.

## Ogasun eta Ekonomia

**JAURLARITZAK 2,9 MILIOI EURO BIDERATU DITU LEHENDAKARITZA, ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA ETA INGURUMEN, LURRALDEAREN PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILETARA, 2019RAKO AURREKONTU LUZATUAN JASOTZEN EZ DIREN JARDUKETEI EKITEKO**

Gobernu Kontseiluak, Lehendakaritza, Enplegua eta Gizarte Politikak, Kultura eta Hizkuntza Politika eta Ingurumen, Lurraldearen Plangintza eta Etxebizitza Sailetarako Kreditu Orokorra 2.957.524 eurotan handitzea onetsi du gaur, 2019rako aurrekontu luzatuan jasotzen ez diren zenbait jarduketa finantzatu ahal izateko.

Aurrekontuak 2018ko ekitalditik 2019ra luzatu behar izanaren ondorioz, EAEko Administrazioiko Sailek, luzatutako aurrekontuetan behar adinako zuzkidurarik ez zuten zenbait jarduketa finantzatu behar izan dituzte.

### LEHENDAKARITZA

- Kreditu gehigarria Emakunderi, soldata arrakala murriztera zuzendutako jarduketetarako. 290.000 €

### ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

- Migratzaileak jasotzeko dispositiboaren egokitzapenerako. 352.301 €

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA. 1.990.223 €

- |   |           |
|---|-----------|
| - Ez ohiko finantzaketa EITBri                      | 1.670.130 |
| - Miramar Jauregiko partzuergorako diru-laguntza    | 56.868    |
| - Elkano Fundaziorako diru-laguntza (Mundubira 500) | 63.225    |
| - Argantzunerako diru-laguntza (Trebilñu)           | 70.000    |
| - Herri Urratserako diru-laguntza                   | 130.000   |

### INGURUMEN, LURRALDEAREN PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

- Birgaitze adimentsu estrategia (alokairurako parke publikoaren energia eraginkortasuna) 325.000 €

### KREDITU OROKORRAREN HANDITZEA, GUZTIRA (2019): 2.957.524 €

## Hezkuntza

### **IKASIKER, IKERKETA LANETAN LAGUNTZEKO BEKETARAKO DEIALDIA**

- **320.000 euroko zenbatekoarekin, 160 beka eskainiko ditu**
- **Beka jaso duten ikasleek Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeetan, BERCetan, Ikerketa Sanitarioko Institutuetan edo Ikerketa Kooperatiboko zentroetan eman ahal izango dute laguntza**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikerketa lanetan laguntzeko Ikasiker beketarako deia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran.

Ikasiker beka unibertsitate ikasleei zuzenduak dira, ikasketekin aldi berean (2019ko irailtik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean) honako ikerketa talde hauetan laguntza emateko prest dauden ikasleentzat: Euskal Unibertsitate Sistemaren ikertaldeetan, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetan (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuetan (ISI) eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroetan (IKZ), hain zuzen ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa kreditatutakoetan

Programaren helburua da unibertsitate-ikasleak euskal ikerketa-sisteman egiten den oinarrizko ikerketa aplikatuaren arloko lanetan hastea. 320.000 euroko diru-kopuruarekin, 160 beka eskainiko dira, honako modalitate hauetan:

- A modalitatea (ikasturtean zehar, 2019ko irailtik 2020ko ekainera): 120 beka.
- B modalitatea (udan, 2020ko uztailetik abuztura): 40 beka

Beka hauek eskuratu nahi dituzten ikasleek unibertsitateko graduako titulazio ofiziala lortzera bideratutako ikasketa-plan bateko azken bi urteetako batean matrikulatuta egon beharko dute, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate batean edo Estatuko unibertsitate batean. Bekaren onuradun izateko, Euskadin izan beharko dute administrazio-egoitza, eta lankidetzaren proiektu bat aurkeztu, lankidetzaren hori gauzatu nahi den ikerketa zentroak behar bezala ziurtatua.

## Hezkuntza

### **STEAM EUSKADI HEZKUNTZA EZARTZEKO INNOBASQUEri 180.000 EURO EMATEA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, hartu du, STEAM Euskadi hezkuntza-estrategia ezartzeko, Innobasque Fundazioari diru-laguntza zuzen bat, 180.000 euroko zenbatekoan, ematea baimentzeko akordioa.

STEAM strategiaren helburua hezkuntza eta formazio zientifikoa eta teknikoa bultzatzea da hezkuntza etapa guztietan. Hezkuntza Sailak STEAM estrategia (ingelesezko akronimoa, Science, Technology, Engineering, Arts eta Mathematics) pasadan urteko ekainean jarri zuen martxan aipatutako helburuarekin, arreta berezia nesketan jarriz.

STEAM ikastea eta praktikatzea trebetasun horiek garatzeko eta gazteak lan-merkatu baterako prestatzeko dira lagungarri; izan ere, lan-merkatu horrek, zientzietan, teknologian, ingeniartzan eta matematiketan ezagutza handiagoa ez ezik, ezagutza hori zentzuz, testuinguru batean eta sormenarekin erabiltzeko gaitasuna ere eskatzen du.

STEAM hezkuntza sustatzea lehentasun bihurtu da Hezkuntza Sailarentzat; izan ere, STEAM strategiaren eta EAEko 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berriztapen Planaren helburuak bat datoz, giza kapitala lan-ildo gisa indartzeari begira, adin goiztiarretatik hasita, zehatzago esanda.

Innobasqueri emandako laguntzaren bitartez, Hezkuntza Sailak STEAM strategiaren barruan dauden ekintza ezberdin bultzatuko ditu.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 65.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU JAI ALAI WORLD TOUR ZESTA PUNTA NAZIOARTEKO ZIRKUITUA BABESTEKO**

- **Aurtengo edizioa Guggenheim Bilbao Museoaan aurkeztu zen iragan astean eta lehia urrira arte luzatuko da.**

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 65.000 euroko dirulaguntza bideratuko du aurten Jai Alai World Tour Nazioarteko Zesta Punta Zirkuituaren antolakuntza diruz laguntzeko. Gobernu Kontseiluak bere gaurko saioan onartu du laguntza hori, Munduko Pilota Batzarrarak jai alairen arloan dagoen zirkuiturik garrantzitsuen antola dezan.

Jai Alai World Tour Zesta Punta Nazioarteko Zirkuitua 2014. urtean jaio zen, modalitate honetako kirolari profesionalik onenak bilduko zituen txapelketa bat sustatzeko asmoz. Zirkuituak lau hileko iraupena izango du aurten, uztailetik urrira arte, eta aurtengo edizioa Donostia, Gernika, Markina-Xemein, Lekeitio, Zumaia, Hondarribia edota Mutrikun gozatu ahal izango da. Aurtengo edizioa iragan asteazkenean aurkeztu zen Guggenheim Bilbao Museoaan, eta lehia Markina-Xemeinen hasi zen larunbatean. Aurtengo partida guztiak euskal frontoietan jokatu diren arren, aurreko edizioetan Bordelen, Bartzelonan edota Mexikoen ere antolatu dira partidak.

Proiektu honen jatorria zesta-punta bultzatzeko aukeren inguruko hausarketa-prozesua izan zen, non Eusko Jaurlaritzak, Munduko Pilota Batzarrak eta Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak parte hartu zuten. Jai Alai World Tour zirkuituaren xedea da zesta-puntaren mundua sustatzea, zaleentzat erakargarria den formatu bat eskainiz udako eta udazkeneko hiletan zehar. Denbora horretan, AEB eta Mexiko utzi eta zirkuitua hartzen duten frontoitan kokatzen da lehiaketaren fokoa.

## Lana eta Justizia

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREKIN (UPV-EHU) LANKIDETZA  
HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANEKO ETA  
GIZARTE SEGURANTZAKO IKUSKARITZAN PRAKTIKAK EGITEKO.**

Gobernu Kontseiluak onartu du lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzea, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Zuzenbide Fakultateko Gradu eta Graduondoko ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta UPV/EHUren arteko hitzarmen hau Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) ikasleak hobeto prestatzen laguntzeko da, eta kanpoko praktika akademikoak, curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzan egiteko aukera emango zaie.

Praktikak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzan egingo dituzten ikasleen kopurua ikuskaritzaren beraren esku egongo da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzako Zuzendariordetzak hartuko du erabakia.

Kanpoko praktikak egiteko, ikasleek Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako begirale bat eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Zuzenbide Fakultateko tutore akademiko bat izango dituzte.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak izendatutako begiralea Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskaritzari atxikitako Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskari bat izango da.

Kanpoko praktika akademikoak formakuntza-jarduera bat direnez, ez dituzte lan-harreman bateko betebeharrak eragingo. Ikasleek ez dute ordainsaririk jasoko egindako jarduerengatik.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO CONSOLIDA SU MODELO DE TRANSPARENCIA ONLINE OFRECIENDO A LA CIUDADANÍA, EN FORMATO REUTILIZABLE, TODA LA INFORMACIÓN QUE DESEA CONOCER

- El balance 2018 sobre el grado de implantación de la transparencia en el Sector Público Vasco concluye que el Gobierno ha realizado “profundos avances” hasta ofrecer, en la actualidad, una información de “calidad, precisa, completa, actualizada, contextualizada, relevante y abierta” a la ciudadanía
- El informe destaca que como hito 2018 la incorporación de Euskadi a la [Alianza Internacional por el Gobierno Abierto \(OGP\)](#), lo que permite alinear la forma y el modo de abrir los gobiernos, interactuar con la ciudadanía y promover la Gobernanza colaborativa

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde, en su reunión de hoy, al “**Informe de Balance 2018 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y su Sector Público**”. Es el cuarto año que el Gobierno Vasco elabora este documento, dando, así, cumplimiento al compromiso adquirido el 13 de enero de 2015, cuando aprobó el conjunto de medidas para regular el acceso a la información pública, la publicidad activa y el avance de la cultura de la transparencia y el buen gobierno.

El informe constata que el Gobierno Vasco ha realizado “profundos avances” en cuanto a la obligación de las instituciones públicas de ofrecer a la ciudadanía online determinada información, el modo en que se publica, la garantía que se ofrece a la ciudadanía del derecho de acceso a la información pública, el cumplimiento de los estándares de transparencia internacionales como, por ejemplo, los establecidos por la ONG Transparencia Internacional, etc. Así, concluye que se ha producido una generalización total en el cumplimiento de todas las obligaciones por parte de las entidades que conforman el Sector Público Autonómico: organismos autónomos, entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, fondos sin personalidad jurídica, fundaciones, consorcios y otras sin fines lucrativos.

En este sentido, el informe aprobado hoy recoge la consolidación de un modelo de transparencia propio del Gobierno Vasco como instrumento hacia el buen gobierno, hacia un gobierno que no sólo hace bien las cosas, sino que hace buenas cosas para la sociedad vasca. Cabe destacar, la autoexigencia del Gobierno para que la información publicada sea de “calidad, es decir, precisa, completa, actualizada, contextualizada, relevante y abierta, que permita su reutilización”.

## ALIANZA INTERNACIONAL POR EL GOBIERNO ABIERTO (OGP)

En el año 2018 destaca el hito de que Euskadi entró a formar parte de la [Alianza Internacional por el Gobierno Abierto \(OGP\)](#) junto con otras 19 regiones del mundo. Esta incorporación fue posible por el compromiso, trabajo y la colaboración interinstitucional del Gobierno Vasco, las tres diputaciones forales, los ayuntamientos de las tres capitales, e *Innobasque*, la Agencia Vasca de la Innovación. La candidatura conjunta de Euskadi impulsó la elaboración de un plan en cuya creación participó, también, la ciudadanía. El plan contempla cinco compromisos:

- ✓ Rendición de cuentas a través de los planes de mandato.
- ✓ *Open Data Euskadi* y *Linked Open Data*.
- ✓ *ILAB* o laboratorio de innovación sobre participación ciudadana en Euskadi.
- ✓ *Open Eskola* (Escuela abierta para la ciudadanía).
- ✓ Sistema vasco de integridad.

## PORTAL DE TRANSPARENCIA: GARDENA

El informe constata que [Gardena](#), el portal de transparencia creado por el Gobierno Vasco en 2015, reúne online información de “un muy alto nivel de calidad, de forma fácilmente accesible, con un carácter periódico y un adecuado carácter descriptivo”, siendo, la mayoría, datos publicados en formatos reutilizables. El Gobierno Vasco publica en la web:

- ✓ Normativa aplicable e información de relevancia jurídica: directrices, instrucciones, acuerdos, circulares, anteproyectos, proyectos de reglamentos, memorias, informes, documentos, etc.
- ✓ Convenios y encomiendas de gestión. Se publican todas las modalidades de convenios y encomiendas de gestión: protocolos, convenios de cofinanciación, convenios patrimoniales, adjudicaciones internas, contratos, programas, etc.
- ✓ Funciones, organigramas de las entidades, perfil y trayectoria profesional del Catálogo de Cargos Públicos. Se puede visitar un directorio de personas, entidades y equipamientos que permite su fácil consulta y visualización.
- ✓ Planes y programas anuales y plurianuales, e indicadores de grado de cumplimiento y resultados. Está publicada y actualizada toda la información relacionada con los calendarios de planes del Gobierno Vasco, así como sus indicadores de medida y valoración.
- ✓ Publicación de contratación. En el “Registro Vasco de Contratos” se publica el 100% de los contratos que suscribe el Sector Público Vasco y las entidades participativas.
- ✓ Subvenciones y ayudas. Se publican todas con fecha, entidad, beneficiario, cuantía, etc.
- ✓ Relaciones de Puestos de Trabajo, resoluciones de compatibilidad de empleados y empleadas y retribuciones del personal público y del personal cargo público
- ✓ Otros: aunque no es obligatorio, el Gobierno Vasco publica numerosa información como el seguimiento del Programa de Gobierno, información

sobre cargos públicos, gastos de viaje de consejeros y consejeras, planes normativos anuales, etc.

Los accesos a los contenidos generales sobre la transparencia, en [Gardena](#), se han duplicado desde el 2016, lo que demuestra el interés de la ciudadanía por conocer el funcionamiento de la administración:

### CONTENIDOS SOBRE TRANSPARENCIA CONSULTADOS

| ÁREA  | 2018    | 2017  | 2016   | 2015  | 2014  |
|---|---------|-------|--------|-------|-------|
| Web de Gardena en global                              | 11.286  | 9.138 | 16.173 | 5.532 | 3.775 |
| Información sobre la Comunidad Autónoma               | 322     | 335   | 1.283  | 1.422 | 571   |
| Relaciones con la ciudadanía y la sociedad            | 159     | 179   | 659    | 593   | 221   |
| Transparencia Económico-financiera                    | 306     | 232   | 954    | 729   | 372   |
| Contratación de servicios y suministros               | 202     | 142   | 582    | 584   | 223   |
| Ordenación del territorio, urbanismo y obras públicas | 79      | 46    | 162    | 198   | 108   |
| Derecho de acceso a la información pública            | 2.995   | 2.253 | 8.359  | 1.715 | 2     |
| Contenidos generales sobre transparencia              | 4.496 * | 3.879 | 2.385  | 850   | 66    |

### EUSKADI LÍDER EN ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y OPEN DATA

Según un informe reciente de la prestigiosa multinacional de consultoría *Ernst&Young* Euskadi es líder del estado en administración digital al cumplir el 94,7 % de las exigencias del funcionamiento digital: portal web, sede electrónica, asistencia a la ciudadanía y empresas, identidad digital y firma electrónica, representación y registro electrónico y comunicación y notificaciones.

El portal [OpenData Euskadi](#) cuenta actualmente con 3.441 conjuntos de datos del Gobierno Vasco y sus entidades dependientes. Además, también cuenta con otros 741 conjuntos de datos de otras administraciones forales y locales. Así, el Gobierno Vasco sigue siendo, un año más, la fuente de datos que mayor datasets publica en el catálogo estatal [www.datos.gob.es](http://www.datos.gob.es).

## LEY DE TRANSPARENCIA

El informe constata que cuando se apruebe la “Proposición de Ley de Transparencia y Participación ciudadana de la Comunidad Autónoma de Euskadi”, presentada por los grupos parlamentarios Nacionalistas y Socialistas Vascos, contribuirá a orientar los esfuerzos de avance que hay que seguir haciendo para garantizar el derecho de acceso a la información pública, la rendición de cuentas y la participación ciudadana. Mientras se aprueba la futura ley, el Gobierno Vasco, continúa con los retos para conseguir una administración todavía más transparente durante este 2019. Para ello:

- ✓ Se está mejorando la calidad de la información publicada
- ✓ Se está implementando el sistema para que la ciudadanía ejerza el derecho de acceso a la información pública de forma que resulte accesible y se extienda, realmente, a toda la ciudadanía.
- ✓ Se está favoreciendo la accesibilidad y comprensión de la información
- ✓ Se está promoviendo la apertura de datos públicos
- ✓ Se están extendiendo las herramientas generadas por el Gobierno Vasco para su uso por parte de las entidades que conforman el sector público para racionalizar recursos
- ✓ Se está contribuyendo a dar coherencia al conjunto de la información publicada por casi doscientas entidades y facilitar a la ciudadanía accesos comunes a los sistemas de información.

## Hacienda y Economía

**EL GOBIERNO DESTINA 2,9 MILLONES DE EUROS A LEHENDARITZA, EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES, CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA PARA ACOMETER ACTUACIONES NO INCLUIDAS EN EL PRESUPUESTO PRORROGADO PARA 2019**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la ampliación del Crédito Global en 2.957.524 euros para los Departamentos de Lehendakaritza, Empleo y Políticas Sociales, Cultura y Política Lingüística y Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda con el objeto de financiar diferentes actuaciones no incluidas en el presupuesto prorrogado para 2019.

La prórroga presupuestaria del ejercicio 2018 al 2019 ha motivado que los diversos Departamentos de la Administración de la CAE tengan necesidad de financiar una serie de actuaciones sin dotación suficiente en sus respectivos presupuestos prorrogados.

### LEHENDAKARITZA

- Crédito adicional a Emakunde actuaciones reducción brecha salarial.  
290.000 €

### EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

- Acondicionamiento dispositivo acogida migrantes.  
352.301€

### CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA. 1.990.223 €

- |   |           |
|---|-----------|
| - Financiación extraordinaria a EITB          | 1.670.130 |
| - Subvención consorcio Palacio Miramar        | 56.868    |
| - Subvención Elkano Fundazioa (Mundubira 500) | 63.225    |
| - Subvención Puebla de Arganzón (Treviño)     | 70.000    |
| - Subvención Herri Urrats                     | 130.000   |

### MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

- Estrategia de rehabilitación inteligente (eficiencia energética parque público alquiler) 325.000 €

**TOTAL AMPLIACIÓN CRÉDITO GLOBAL (2019) 2.957.524 €**

## Educación

### CONVOCATORIA PARA LAS BECAS IKASIKER DE COLABORACIÓN EN TAREAS DE INVESTIGACIÓN

- **Con un importe de 320.000 euros, se ofrecen 160 becas**
- **Los estudiantes becados podrán prestar su colaboración en grupos de investigación del Sistema Universitario Vasco, BERC, CIC, IIS, o Centros de Investigación Cooperativa**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden que convoca las becas Ikasiker de colaboración en tareas de investigación.

Las becas Ikasiker están dirigidas a estudiantes universitarios y universitarias que, en régimen de compatibilidad con sus estudios, en el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2019 y el 31 de agosto de 2020, deseen prestar su colaboración en Grupos de Investigación del Sistema Universitario Vasco, Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC), Institutos de Investigación Sanitaria (IIS) y Centros de Investigación Cooperativa (CIC), reconocidos por el Gobierno Vasco y acreditados como agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Este programa persigue iniciar a las y los estudiantes universitarios en las tareas propias de la investigación básica y aplicada que se realiza en el sistema vasco de investigación. Con un importe global de 320.000 euros, se ofertarán un total de 160 becas, en las siguientes modalidades:

- Modalidad A (durante el curso académico, de septiembre de 2019 a junio de 2020): 120 becas.
- Modalidad B (durante el periodo estival, de julio a agosto de 2020): 40 becas.

Los estudiantes que opten a dichas plazas, con vecindad administrativa en el País Vasco, deberán estar matriculados en uno de los dos últimos cursos de un plan de estudios conducente a una titulación de Grado oficial universitario. Deberán cursar sus estudios en una universidad perteneciente al Sistema Universitario Vasco o en una universidad del resto del Estado. Habrán de presentar un proyecto de colaboración debidamente razonado y avalado por el grupo o centro de investigación donde vaya desarrollarse la colaboración.



## Educación

### **180.000 EUROS A INNOBASQUE PARA LA IMPLANTACIÓN DE LA EDUCACIÓN STEAM EUSKADI**

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Educación, ha acordado autorizar la concesión de una subvención directa, por importe de 180.000 euros, a la Fundación Innobasque para la implantación de la Estrategia de Educación STEAM Euskadi.

La Estrategia de Educación STEAM Euskadi tiene por objetivo impulsar la educación y formación científico-técnica en todas las etapas educativas. El Departamento de Educación puso en marcha la Estrategia STEAM (acrónimo inglés de Science, Technology, Engineering, Arts and Mathematics) en junio del año pasado con el objetivo de promover la educación en ciencia y tecnología en todos los niveles educativos, y con especial atención a las alumnas.

El aprendizaje y la práctica de STEAM ayudan a desarrollar estas habilidades y a preparar a la juventud para un mercado de trabajo que demanda no solo mayor conocimiento en ciencias, tecnología, ingeniería y matemáticas, sino, además, la capacidad de utilizarlo con sentido, contexto y creatividad.

El impulso a la Educación STEAM se ha convertido en una prioridad para el Departamento de Educación, que deriva de la confluencia de objetivos de las estrategias STEAM y del Plan de Ciencia Tecnología e Innovación 2020 de la CAE, y más concretamente en lo relativo al fortalecimiento del capital humano como línea de trabajo, empezando por edades tempranas.

Mediante la ayuda concedida a Innobasque, el Departamento de Educación implementará varias acciones, dentro de la Estrategia de Educación STEAM Euskadi.

## Cultura y Política Lingüística

### EL GOBIERNO VASCO DESTINA 65.000 EUROS PARA APOYAR LA ORGANIZACIÓN DEL CIRCUITO INTERNACIONAL DE CESTA PUNTA JAI ALAI WORLD TOUR

- **La edición de este año se presentó en el Museo Guggenheim Bilbao la pasada semana y la competición de alargará hasta el mes de octubre**

La Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco destinará este año una subvención de 65.000 euros para apoyar económicamente la organización del Circuito Internacional de Cesta Punta Jai Alai World Tour. El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy esta ayuda, concedida a Munduko Pilota Batzarra - Consejo Mundial de la Pelota Vasca, que permite organizar el circuito de cesta punta más importante que existe en la actualidad.

El Circuito Internacional de Cesta Punta Jai Alai World Tour nació en el año 2014 con el fin de impulsar un campeonato que reuniera a los mejores profesionales de esta modalidad. Este campeonato se alarga este año durante cuatro meses, desde julio hasta finales de octubre, y en la presente edición se disputará, entre otros frontones, en Donostia-San Sebastián, Gernika, Markina-Xemein, Lekeitio, Zumaia, Hondarribia o Mutriku. La presente edición se presentó el pasado miércoles en el Museo Guggenheim Bilbao y la competición arrancó el sábado en Markina-Xemein. Aunque en esta edición todos los partidos se disputarán en territorios vasco, en anteriores ediciones se han disputado partidos en lugares como Burdeos, Barcelona o México.

Este proyecto nació de un proceso de reflexión en torno a cómo relanzar la cesta punta, un debate que implicó al Gobierno Vasco, el Consejo Mundial de la Pelota Vasca y la Federación Vasca de Pelota Vasca. Jai Alai World Tour pretende promocionar el mundo de la cesta punta, presentando un modelo de competición atractivo para las y los aficionados durante los meses de verano y otoño, un periodo en el cual el foco de la competición pasa de estar en EE.UU. y México para situarse en los frontones en los que se disputa este circuito.

## Trabajo y Justicia

### **CONVENIO DE COOPERACIÓN CON LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (UPV-EHU) PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS EN LA INSPECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL DEL PAÍS VASCO.**

El Consejo de Gobierno ha autorizado la suscripción del convenio de cooperación para la realización de prácticas académicas externas del alumnado de la titulación de Grado y Posgrado de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU).

Se trata de un Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la UPV-EHU para contribuir a la mejor formación del alumnado de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU), facilitando la realización de las prácticas académicas externas, curriculares y extracurriculares, mediante la realización de estas en la Inspección de Trabajo y Seguridad Social del País Vasco.

El número de alumnos/as que realizarán las prácticas en la Inspección de Trabajo y Seguridad Social dependerá de la disponibilidad de esta, y será la Subdirección de la Inspección de Trabajo del País Vasco quien aprecie esta disponibilidad.

Para la realización de las prácticas externas los/as estudiantes contarán con un/a instructor/a de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y un/a tutor/a académico/a de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU).

El/la instructor/a designado/a por la Inspección de Trabajo y Seguridad Social será un/a Inspector/a de Trabajo y Seguridad Social adscrito/a a la Inspección del País Vasco.

Dado el carácter formativo de las prácticas académicas externas, de su realización no se derivarán, en ningún caso, obligaciones propias de una relación laboral. Los/as alumnos/as no percibirán retribución alguna por las actividades realizadas